

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Presidentea, Sailburu Andrea, Ertzaintzako kide eta agintariak, Lagunak, egun on guztioi.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenta lez, niretzat beti izaten da ohore handia Gernikako Arbolaren ekitaldi sinbolikoetan parte hartzea.

Eta gaurkoa ere egun berezia eta atsegina da niretzat.

Ikusi dugun moduan, duela 20 urte erabaki zenuten Gernikako Arbolaren oinordekoari toki berezi eta kuttuna ematea Ertzaintzaren Gipuzkoako Burutzaren egoitza honetan, Ikurrinaren erdigunean, Lurralde bulegoa sinbolizatuz.

Ertzaintzarentzat inspirazio iturri direlako ikurrina eta Gernikako Arbolak transmititzen duen guztia.

Gernikako Arbolari buruz Ertzaintzako Buru ohiak prestatutako txostena irakurtzean ezagutu nuen sinbologia hori, eta aitortu behar dizuet oso hunkigarria iruditu zaidala.

Gernikako Arbola euskaldunon ikurrik unibertsalena da, gure askatasunen eta herri honek duen bake nahiaren sinboloa.

Jakitun nago Gernikako Haritzaren sinbologia beti egon dela oso lotuta Ertzaintzaren ikonografiarekin, eta oraindik ere hala dago agintarien galoietan.

Gernikako Haritzaren orria, agintaritzaren sinbolotzat soinean daramazuena, erantzukizun erantsi bat da, nire ustez.

Gaurko ekitaldi honekin gure aitortza eta esker ona adierazi nahi diogu Ertzaintzari urte luze eta gogor hauetan euskal gizartearen

alde egindako lan handiagatik. Guztiok dakigu ez dela erraza izan, eta zuek inork baino hobeto dakizue gure herrian sufrimendu handia eta bidegabea pairatu behar izan duzuela pertsona askok eta askok. Horregatik, gaurkoan gogoan izan nahi ditut bereziki zerbitzu-egintzetan eroritako ertzain guztiak.

Haritz hau Gernikan dagoenaren oinordekoa da. Kontu handiz jarraituko duzue zaintzen, eta orain arte bezala osasuntsu hasiko da, seguru nago, eta seguru nago, baita ere, Ertzaintza konprometituta dagoena Euskadiren bakearekin, elkarbizitzarekin eta giza eskubideen errespetuarekin.